

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

574/2024 Foru Agindua, azaroaren 20koa. Akatsa zuzentzea azaroaren 13ko 533/2024 Foru Aginduan, zeinaren bidez karrerako funtzionarioak izendatu baitziren, administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalako goi-mailako teknikarien klasean (zuzenbidea, A taldea, A1 azpitaldea), karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesu baitagokio (2022ko EPEa)

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren azaroaren 13ko 533/2024 Foru Aginduaren bidez (2024ko azaroaren 20ko ALHAOn argitaratua, 132. zk.), karrerako funtzionarioak izendatu ziren, administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalako goi-mailako teknikarien klasean (zuzenbidea, A taldea, A1 azpitaldea), karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesu baitagokio (2022ko EPEa).

Foru agindu horretan akats bat antzeman da izendatutako pertsonetako baten bigarren abizenean; beraz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua arabera, zuzendu egiten da: «Marta Rico Fernández» jartzen duen lekuan «Marta Rico Mendiguren» jarri behar du.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Azaroaren 13ko 533/2024 Foru Aginduaren lehenengo xedapenean antzemandako akatsa zuzentzea. Honela geratuko da idatzita:

Karrerako funtzionario izendatzea, administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalako goi-mailako teknikarien klasean (zuzenbidea, A taldea, A1 azpitaldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuari baitagokio (2022ko EPEa), hura gainditu duten izangaiak, ondoren adierazten diren lanpostuei atxikita:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Leandro Angulo Tobalina	Lege eta administrazio erakundeko kidea	1170.004
Beatriz Muñoa Murguiondo	Hirigintzako teknikari legalaria	1372.001
Ana María González Galaz	Gizarte zerbitzuen ikuskatzailetako teknikarora	1129.001
Marta Rico Mendiguren	Toki administrazioko teknikari legalaria	1285.002

Bigarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 20a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR